

# KULTURKRITIKA

» LIBURUA

## Urradura sakon batetik



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



**Egiaren egarriz**

HENRIETTE AIRE

Maiatz, 1989

Lehenik, Itxaro Bordaren *Emakumeak idazle* saiakera hartan izan genuen haren berri –“esan nion ez nuela parte hartu nahi liburu horretan, ni ez nintzela ez idazle sentitzen, ez emakume idazle sentitzen ere. Eta atera egin zituen olerkiak!”–.

Henriette Aire. Urepelen sortua. Kontxo, aitaren alaba, Aire ahizpa-neben arteko bat, nagusia. Hazka gehixeago eginez, harrapatu genion poesia liburu bat, *Egiaren egarriz*. Bordaren antologiako bi poema aurkitu ditugu bertan –apur batean moldatuak, finduak–, hirugarren bat gelditu zen bidean. Ordainetan, beste hemezortzi poemekin osatu zuen bilduma, guztira hogeita bat.

Josu Landak xehatu zituen: “Libre ezin bizitzeak eta maitasuna nahi bezala ezin gozatzek” markatzen ditu denak –“Nahi duena ezin ukana duenak/ Eta ukan dezakena ez nahi/ Daukana ezin dezake maita”–; mundura egokitu ezinean dabilen gizakia dute protagonista–“Herria herri maitea/ Nahi zintuzket askatu/ (...) Bainan nola ditzazket/ Moztu zure kateak/ Ni loturik nagoenian/ Preso gizar-tean”–; eta are arrotzago sentitzen da emakumea mundu horretan, zapaldua –“Altza burua emazte/ Ez egon bide erditan/ Bizitzak balio du/ Bizitzea”–. Landak, oraindik: “Urradura sakon batetik sortzen dira hitzak”.

Urradura sakon hori zein izan daiteke, ordea. Akaso besterik, baina bat egin izan du publiko inoiz Airek: “Parisen bizi izan naiz, hamaika urtez. Hamaika urteren buruan, senarrarengandik banandu eta erabaki nuen berriz Euskal Herrira etortzea, hiru semeekin. Aitak gaizki hartu zuen, eta esan zidan: ez dut

nahi gehiago esan dezazun inori ene alaba zirela, eta ez dut nahi jin ziten gehiago etxera”. Urradura sakon hori garbi agertzen da *Uste zinuen* izeneko poema luzean, “dozena bat orrialdeetan zehar bizitzaren ikuspegi zapuztu baina azkenean optimista” eskaintzen digun horretan. Ikuspegi zapuztua: “Zure uz-tarria/ Ezin jasana duzula?/ Bakartasunean/ Eta zuhaurek/ Arduratu nahi duzula/ Bizitzeko gelditzen zaizun/ Zure biziak?/ Burutik joan ote zira?”. Baina azkenean optimista: “Ikusten zaitut zoriontsu/ Zure osotasunean/ Zoriontsu/ Maitasunean”. Eta optimista, akaso, nor daki, inoiz publiko egin izan duen honegatik: “Gero etorri nintzen, aita Bordelen zegoen ospitalean, hara joan nintzen eta oso ondo pasatu zen, txurixuri, larri zegoen ohetik ni ikusita jeiki zen eta besarkatu ginene... Bidean esan zizkidan haiek ez baitziren aitarrenak berarenak, inguruak esanarazi zizkion, haren malkoetan ikusi nuen”.

Bidean, halaber, nobela bat hasia, eta denbora eskasiaz ez egina. Domaia da, hartara, urradura sakon hark, edo beste batzuek, emaitza gehiago eman ez izana. ■

*Henriette Aire Etxebarren Urepeleko Xalbador etxaldean sortu zen 1943ko maiatzaren 22an.*

